

## HITZAURREA

Itzulpenak, denok dakigunez, XVI. mendetik harrera irekia izan du Euskal Herrian, bereziki 1571.ean Leizarragak *Testamentu Berria* argitara eman zue-netik. Geroztiko urteetan zehar, zer esanik ere ez, itzulpenak sorketazkoak baino leku zabalagoa hartu zuen gure literaturan.

Luis Luziano Bonaparte printzearen eraginez egin ziren Bibliaren itzulpenak, nahiz zatika edo osorik, Duvoisin nagusi zela, euskalki guztietara hedaturik. Eta gure mende honen lehen partean Olabide, Orixe, Zaitegi, Ibiñagabeitia eta abar nabarmendu ziren itzulpengintzan, Biblia ez ezik munduan klasikoak diren antzinako obra asko euskaratuz.

Esan beharrik ez dago beste hizkuntzenganako ate irekiak kulturaz elkar aberasten gaituela. Mendez mende, munduko kultura eta zientzia harremanen jarraipena beharrezko zaigun heinean nahitaezkoa zaigun berrikuntza datorkigu itzulpenaren bidez. Itzulpenaren alorrean aurrerakuntza nabari da urtetik urtera gehituaz. Ekintza hau goraka dator, munduan diren klasikorik aipatuena euskaratzeraino.

Gainera, edozein idazleri on zaio itzultze saioen bat egitea, hori bere luma bizkortzeko lagungarri zaiolako; batez ere bere hizkuntzaren ahalmenak ezagutzeko eta idazkera estiloa bera bizkortu ez ezik hobetu dezan.

Itzulpenaren teknikak, halabeharrez, urtetik urtera hobetuz joan dira. Baina, gaur egun ere, edozein itzultzaileari beharrezko zaio E. Doleten gomendiozko liburua ezagutzea, gogoan eduki dezan han proposatzen diren oinarizko bost puntu eredugarriak beharrezko dituela ezer onik egin nahi baldin badu.

Itzultzaileak, lehen lehenik, nahitaezkoa du erabili behar dituen bi hizkuntzak menderatzeaz gainera itzuli behar duen gaia bera ondo ezagutzea, hizkuntza batetik hartzen duena doi-doiki bestean emateko; aldi berean, erarik jatorrenean adierazteko, euskarak berez duen jatortasuna gorde beharra

du eta hori beti ez da gauza erraza. Lanak ondo burutzeko, esan beharrik ez dago, jatortasunez argi eta garbi azaldu behar du.

Gaur egungo oztoporik nagusienetako bat izan daiteke elebitasuna maizegi erderaren morroitzapera eramateko arriskuan dagoela, itzultzaileak berebaitarik arreta handia jartzen ez badu behintzat. Hitzez hitz aldatzea ez da aski, hizkuntza bakoitzak duen tipologia kontutan eduki gabe. Gramatikaz gainera, esaldi eta esaeretan hizkuntzak berez dituen era jatorrak aurkituz eta horietaz baliatuz. Adibidez, ez luke zentzurik gaztelerazko «tomar el pelo» hitzez hitz euskaraz jartzeak, euskarazko «adarra jo»k erdaraz zentzurik ez duen bezala. Gai hauetaz, A. Luis Villasantek *Euskararen auziaz* (1988) deritzan liburuaren XII. kapituluan adibiderik aski erakusten digu.

Itzulpena ogibide dutenen artean, eta gaur egun asko dira elebidun Administraritzaren ofizialaren beharrak hala eskatzen duenez, denboraren ekonomiara makurtzen denik bada, hitz egokiak zein era jatorrezkoak aurkitu beharrez erderakora errazegi lerratzen denik, alegia.

Tamalgarria da hitzetan zein gramatikan axolarik gabe aritzen diranen jokaera, langintza ekonomiak beharturik agian, zeren luzarora begira bai itzulpen eta bai hizkuntzaren kaltetan izan baitaitezke.

Gerraondoko belaunaldikoak ez zeuden diru irabazpenari begira, bai ordea maizegi idealari loturik eta loari lapurturiko orduetan jotake hizkuntza baztertuaren pizgarritzako lan eskergabeen murgildurik. Euren lumaz saiatuz ari ziren, herbestekoei atea irekiz haize berriak etxera garraiatuz; itzulpenaren hobekuntzak gogoan, idazlea bera aberaste lorpenez, bai hizkuntzaren erabileraz, bai hizlaxoaren estiloaz. Azken helburutzat, legezko zitzaien irakurle aditzailearen begiekin ikustea.

Bestalde, gaur egun, maizegi entzuna dut, eta ahalke utzi izan nau, prosa bizkor eta eraginkorra, «urbanoa», orain lortu dugula. Uste hori dutenek, nonbait ez dute irakurri (eta irakurtzeaz bat gogoeta egin) Duvoisin, Barbier, J.B. Arbelbide, J. Etchepare, Barrenso, ... eta antzerakoen lanik. Nere ustez, oraindik hor ditugu irakasle, ezer onik burutu nahi duenarentzat.

Hor ditugun bezala gerraondoko egile hauen lanak, sorketazkotik hasi eta itzulpenak arte, bakoitzak bere eredu eskainiz.

Ez noa esatera hemen hautatuak direnen itzulpenok bertako bakoitzaren egokienak direnik. Ez baitakigu bakoitzari zer kosta zitzaion itzulpenaren saioa; baina ikustekorik izango du, noski, bakoitzak bere sorketaz euskal literaturara eskaini duenarekin. Gogozko bidean aldaparik ez, esan ohi da; eta bakoitzak izango du bere sorketazko lanean idea zein estilo aldetik, egin zuen itzulpen lanari zerbait zor dionik.

E. Erkiaga hizlaxoan, ipuin, elaberri eta antzerkigintzan nabarmendu baten, oroit daiteke aldizkarietan sakabanaturik eman zituen olerki hunkikorrak ez direla nolanhikoak. Merezi luke bilduma eder bat.

L. Akesolo, Unamunoren larriminezko poematarik zenbait euskaratu zituen, literatura ikerketan zen gizon bikaina. Gutxi adina ezagutzen zituen lehengo idazleen lanak, eta Joan Kurutzekoaren *Gau illuna* ontzen ere ez zen motz gelditu.

J. Kerexetaren *Orbelak* eta *Bitargi* olerki liburuek bere garaian nigan eragin ongarria izan zuten. Biblia osoa bizkaieraz jarri zuenagandik *Itun berria* hautatzea oso egokia iruditzen zait.

Y. Etxaide, euskal literaturaren bideetan hainbeste zor diodanagatik, zer esan? Bera izan zen, gerraondoko prosagintza azkartu zuena. Zein gogoangarriak ditugun *Alos-torrea*, *Joanak joan*, *Gorrotoa lege* eta beste! *Domiku Garat*, itzulpen bezala ez ezik, gure historia ezagutzeko hain egokia dena, uka ezinezko hautapena deritzot.

X. Diharce «Iratzeder»ek *Pindar* eta *Iano*-rekin utzi zidan hizkuntzaren doinu egokia eta nere entzumenean daroat bizi naizen arte. Berriz ere *Salmoak* hauta, eta nola ez, Bibliaz hainbeste arduratu diren Belokeko eskolaren abatarengandik ezer hautatzekotan?

S. Onaindia, gure idazleetan emankorra. Hainbeste lan burutzeko denbora hartzea ez da fraile soil izatetik, langile borrokatutik baizik. Egile eta eragile zintzoa, hala ezagutu nuen Eibarko egotaldi hartan eta uste dut hala jarraituko duela mundu honetako azken orduak arte. Lirikan murgildurik, beti alai eta irriparrez, R. Tagore eredu hartzea ez da ulertezina.

M. D. Agirre, Barrensoa zenaren arreba, esatari onaren baitan ezinezko da idazle txarra izatea. Maria Doloresek euskararen esparruan antzerkigintzari eskaini zion bere egitekoa T. Alzagaren babespean, Donostiako *Academia de Declamación* haren jarraitzaile izateko. A. Casona zein F. Garcia Lorca-ren antzerki lanak itzuli ez ezik aurkeztatu ere egin zituen.

P. Berrondok, Joan Inazio Goikoetxea «Gaztelu»ren inguruan ikasi zituen itzulketa lanak eta maisu onagandik ezin ba frutu txarrik eman. Cervantesen lanek aspalditxotik erakutsi zuten gure artean itzultzeko kezka eta gogoia. Hala nola, adibidez, lehen Akesolok *El celoso extremeño* (Agure kezkatia) eta A. Larrakoetxea «Legoaldi»k *La tia Comelia* itzulpenak burutu zituzten; baina inor ez zen ausartu *Don Kixote* osorik euskaratzera eta hori orain Berrondori zor zaio.

Hitzaurre hau bukatzeko, oroit dezadan Cervantes, agurrez eta ohorez. Ager dezadan edonork dakien bezala, *Don Kixote* delakoaren lehen liburua

bigarrena baino arduratsuago egina dela; baina bigarreanean bere burua zuritu nahi zuen gazteleraz idazteagatik, eta ez garai hartako intelektualen latinez. Horregatik, bigarren liburuko hitzetan, hain unibersal egin den obrak, hizkuntza kontuan guztiontzat ikasbide bikaina agertu zuen bertan emandako esaldi hartan: "...Homerok ez zuen latinez idatzi, grekoa bai zen; Virgiliok ere ez zuen grekeraz idatzi, latinoak bai zen. Horren ondorioz: antzineko poeta guztiek bularretik hartu zuten hizkuntzan idatzi zuten, eta ez ziren atzerritarren bila joan beren kontzeptuen gorena aldarrikatzeko; eta hori horrela izanik, legezkoa litzake ohitura hori nazio guztietan zabaltzea, eta ez dezatela gaitzetsi poeta alemana bere hizkuntzan idazten duelako, ezta gaztelarra, ezta berean idazten duen bizkaitarra ere". (*Kix* II, 16).

Mundua orotarikoa denez gero, unibersaltasuna guztiok osatzen dugun zerbait da; bakoitza, lehenik, bera eta bere kidekoena denez, guztiok, horren arabera gara munduaren osatzaile, eta norbere izakera naturala baztertzeko den neurrian desorekatzen dugu unibersaltasuna; naturarekiko arrazoia ez dagoenez txiki edo handi neurrian, nortasunari ukorrik gabe, guztiok oro barne hartzean baizik. Bakebideak ere hori eskatzen du. Itzultzaileak ordea, betebeharrak garrantzitsuak du bere baitan, gizakion kultura orokorrera anaitasunezko harremanak irekiz elkar hurbiltzen gaituenez.

Hondarribia, 1995eko azaroan

*Juan San Martin*

Euskaltzaina